

# Lasaiago dator Kashbad taldearen 'Hesiak' hirugarren diskoa

*Gorka Lazkanoren espetxeratzeak eragina izan duela uste du Sesma gitarra joleak*

Ainara Mendiola / Donostia

**Distantzia** bi urtez gorde ondoren, **Hesiak** diskoaren eskuetan utzi du lekukoa Kashbad taldeak. Baxulari berriarekin eta erritmo lasaiagoekin

dator hirugarren diskoa, eta abestietako bat espetxean izan den baxu joleari buruzkoa da, Gorka Lazkanori buruzkoa. Gorka Sesma gitarra jolearen ustez, Lazkanoren espetxeratzeak eragina izan du taldean eta

disko ezberdina ateratzaie. Hala ere, diskoan erabateko aldaketarik ez dagoela azpimarratu du. Atzo aurkeztu zen diskoa, Donostiako Koldo Mitxelena liburutegian, eta larunbatean egingo dute lehen kontzertua.



EDURNE KOCH

Kashbad taldeko kideek atzo Donostian egin zuten lan berriaren aurkezpena.

IRAGAN MARTXOAN taldeko baxu jolea atxilotu eta espetxeratu zutenean, zer egin ez zekiela gelditu zen Kashbad taldea. Geldirik egon zen baxulari berri batekin jarraitu edo ez pentsatzen, eta, azkenean, Irungo Lisabö taldeko Karlos Osinagari proposamena egin eta hark onartu egin zuen. Karlosekin grabatu zuen **Hesiak** diskoa Kashbadek, eta, Gorka Sesma gitarra jolearen arabera, kontzertuak ere harekin ematea pentsatzen du Kashbad taldeak, Lazkano taldera berregokitu bitartean. Gero erabakiko du bi baxulariekin jarraitu edo zer egin.

Kashbaden bigarren diskoa lehena baino lasaiagoa zen, eta hirugarrena bigarrena baino motelagoa da. Sesmaren ustez, Lazkanoren egoerak eragina izan du diskoan: «Badago kanta bat

haren egoerari buruz hitz egin duena, eta gudan ere egin pertsonala izan du; nik uste dut zerbait nabaritzen dela diskoan. Abesti batzuk lasaiagoak dira, beste testura batekoak. Egia da disko ezberdina ateratzaigula, eta nik uste dut eragina izan duela».

**Hesiak** bederatzi abestiz osatuta dago, eta lasaiagoak izan arren, orain arte egin duten disko luzeena da. Hala ere, erabateko aldaketarik ez dela gertatu azpimarratu du Sesmak: «Erritmoak motelagoak dira edo ez dira lehenengo eta bigarren diskoan bezain azkarrak, baina ez da al-

daketa erabatekoa, bilakaera bat izan da, aurreko diskotant nabaritu den aldaketa».

Urrian grabatu zuen diskoa Kashbad taldeak, Urdu-lizko Tio Pete estudioan, aurreko teknikari berarekin (Jose Lastra). Hamalau egunetan egin zuen, eta inoiz baino gehiago zaindu du soinua: «Denbora luzeagoan egon gara soinua lantzen eta, agian, pixka bat zainduagoa dago, disko dotorexeagoa da».

## GORKA SESMA

### Erritmoak

■ ■ ■ «Erritmoak motelagoak dira edo ez dira lehenengo diskoan eta bigarrenengan bezain azkarrak, baina ez da aldaketa erabatekoa»

### Soinua

■ ■ ■ «Denbora luzeagoan egon gara soinua lantzen eta, agian, pixka bat zainduagoa dago, disko dotorexeagoa da»

## Hesiak distantzian

■ ARITZ BERISTAIN *Txiki* bateriak, Gorka Sesma gitarra joleak, Xorkun Rubio abeslariak eta Karlos Osinaga baxu joleak osatuko dute oraingoz Kashbad taldea, eta litekeena da aurrerago Gorka Lazkano bueltatzea. **Distantzian** izan da bitartean eta **hesiek** oztopatu diote taldearekin batera egotea.

Sorreran beste taldeki-de bat ere izan zuen Kashbad taldeak, baina bigarren diskoa kaleratu aurretik utzi zuen eta kontzertuak murriztu behar izan zituzten. Garai hartan (1995-1996), kontzertu ugari ematen ari zen taldea. Hala ere, urte bat geroago, 1997an, bigarren diskoa kaleratu zuen.

Xorkun Rubio abeslaria kasualitatez sartu zen Kashbaden. Taldea abian zela, koadrilekoei abesteko eskatzen zieten entseguetan, eta Xorkunen txanda iritsi zenean, oso ongi egiten zuela ikusi zuten. Taldean sartu eta eta beste hainbat musikariren arreta erakarri zuen Xorkunen ahotsak; Fermin Muguruzarena, adibidez. Geroztik hainbatetan kolaboratu du Muguruzarekin.

Duela lau urte hasi zen ezagun egiten Kashbad. Ordurako hitzartua zuen Esan Ozenkirekin diskoa grabatzea, baina artean egiteke zuen. Kontzertuak ematen hasi, eta Euskal Herri osoan izan ziren, baita atzerrian ere. Galizia, Katalunia, Italia eta Frantzia izan zen, besteak beste. Eta disko berriarekin ere kanpora ateratzea nahi luke taldeak.

abestea, ez du eraginik izan abestiak egiterakoan», Sesmaren arabera.

Diskoa kalean dela, azaroaren 27an hasiko da Kashbad kontzertuak ematen. Lehena Lesakan emango du, abenduaren 4an Elorrioren izango da (Euskal Herrian Euskaraz jaialdian), abenduaren 10ean Lekeition, 11n Donostian, 17an Gasteizen eta urtarrilean Madrilén. Abenduan, urtarrilean eta otsailean eman nahi ditu Kashbadek kontzertuak oraingoz.